



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
BIZKAI A

## PRENTSARAKO OHARRA

# EUSKADIKO GGKE-EN KOORDINAKUNDEAK “MUNDU OSOAN ALKARTASUNEZKO LOTURAK INDARTZEA” ESKATU DAU, KRISI HONETAN “INOR ATZEAN EZ IZTEKO”

- **Koordinakunde horren izenean, Sonia González Bizkaiko Batzar Nagusietako Eskaeratarako eta Herritarrakazko Hartu-Emonetarako Batzordera etorri da, Covid-19aren krisiak eragin dituan arazoan aurrean konponbideak eskatzeko eta Batzarretako taldeek planteautako gaiei erantzuteko.**
- **Beste agerraldi batean, Babestu alkartea Bizkaian egoitza eredu barri “publikoa, unibertsala eta dobakoa” eragitearen alde agertu da.**

(Bilbon, 2020ko garagarrilaren 17an). Euskadiko GGKEen Koordinakundea Bizkaiko Batzar Nagusietara etorri da gaur, COVID-19aren hedapenak sortu dauen krisirako konponbide “zuzena eta inklusiboa” lortzeko daukazan posizionamendua eta neurriak helduarazoteko eta aurkezteko, eta Bizkaiko lurralde historikoan “inor ez dala atzean itziko” bermatuko dauen “foru hitzarmen handia” lortzeko. Holan, Sonia González bozeroaleak, “mundu osoan alkartasunezko loturak indartzea” eskatu dau Eskaeratarako eta Herritarrakazko Hartu-Emonetarako Batzordean.

Bere agerraldian, Gonzálezek, Euskadiko 79 GKE alkartzen dituan koordinakundeak planteetan dituan neurri nagusien errepasoa egin dau. Horreen artean, honeek aitatu ditu: gizarteko arlo guztietan “zerbitzu publikoak indartzea”; kutsaduraren eragina jasan dabena persona “guztiei” arretea emongo deuten “kalidadeko osasun publikoa bermatzea”; etxebizitzarako eskubidea “blindetea”; zaintza-lana “balioan jartea”; eta umeak “babestea” eta hezkuntzarako eskubidea bermatzea. Horrez gain, larrialdiaren abagunearen barruan dagozan ekintza guztiek, “genero ikuspegi interseksionala eta aniztasun afektibo-sexuala” kontuan izango dabela “ziurtatzea” eta “persona guztien laneko eskubideak autortzea eta zabaltea” be eskatu dau.

Euskadiko GGKEen Koordinakundearen ordezkariak, ekonomiaren berreraikuntzan “lehentasuna gizarte arloko justiziak eta trantsizino ekologikoak” izatea be eskatu dau. Holan, Gobernu Kanpoko Erakundeentzat oso garrantzitsua da “naturaren parte garala onartzea, planeteagaz eta ganerako izaki bizidunakaz erlazionetako beste formula batzuk topetako”. 13 eskariren artean, Gonzálezek honeek egin ditu: gizarte arloko egiturea eta



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
BIZKAIA

herritarrek laguntzarako sareak eregiteko daukien gaitasuna indartzea; persona guztien askatasun publikoak ziurtatzea, larrialdi adierazpenean justifikau dan mugatze esparruaren aurrean; eta giza eskubideen aurrean zuzena eta errespetuzkoa izango dan nazinoarteko esparruaren aldeko apustua egitea.

Horrez gain, gizateriak dituan “preminazko” beste erronka batzuk ez ahaztea eskatu deutse Batzarretako taldeei, “gatazka armatuak, gosea, feminizidioak, homofobia, transfobia, errefuxiauuen egoerea, klima arloko larrialdia, dibersidadearen galera tasa azkarra, prebenidu daitekezan gaixotasunek eragiten dituen heriotzak... berrogeialdian ez dagozan arren, atzean itzi ezin daitekezan arazo globalak, hain zuzen be”.

Batzarretako taldeen galderei erantzunez, Koordinakundeko bozeroaleak esan dau GKEek erakunde publikoakaz daukien hartu-emona “oso ona” dala. Dana dala, “arazo” bat dago partaidetza aktiboagaz, izan be, “gure eskariak ez dira jasoten”. Holan, bere eretxiz, Bizkaiko Foru Aldundian “partaidetza aktiboa hobetzeko bide luzea egin behar da oraindino”. Azkenean, Aldundiko aurrekontuaren %0,7a Lankidetzarako eta Garapenerako politiketara bideratu beharra ez ahazteko eskatu dau.

## ADINEKOEN EGOITZEN EREDUA

Batzordera Iraide Urriz Babestu Alkarteko kidea be etorri da, lurraldeko adinekoen egoitzen ereduaren eta kudeaketaren ganean erakunde horrek daukazan proposamenak azaltzeko. Etorri dan ordezkaria Bizkaian adinekoentzako beste arreta eredu “publiko, unibertsal eta dobakoa” eregitearen alde agertu da, izan be, une honetan indarrean dagon lankidetzara publiko-pribadu ereduak “ez dau funtzionetan” eta hori argi eta garbi ikusi da Covid-19ak eragindako osasun krisian.

Urrizek, Bizkaiko egoitzek pandemian erakutsi daben “kezketako moduko” egoeraren erradiografia orokorra emon dau, eta adinekoei emoten jaken zerbitzua kaltetu daben hainbat alderdi kritikau ditu, bisitak ezin jasotea, behargin faltea, asteburuetan batez be, edo babeserako material faltea eta herritarrei informazino gitxi eman izana. Etorri dan emakumeak, osasun arazoak daukiezan erabiltzaileei arreta emoteko sendagilerik eta erizainik ez egotea be kritikau dau.



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
BIZKAIA

## NOTA DE PRENSA

# LA COORDINADORA DE ONGD DE EUSKADI APELA A “FORTALECER LOS LAZOS DE SOLIDARIDAD EN TODO EL MUNDO” PARA “NO DEJAR A NADIE ATRÁS” EN ESTA CRISIS

- En nombre de esta coordinadora, **Sonia González acude a la Comisión de Peticiones y Relaciones con la Ciudadanía de las Juntas Generales de Bizkaia para reclamar soluciones por la crisis del Covid-19 y responder a las cuestiones planteadas por los grupos junteros.**
- En otra comparecencia, **la asociación Babestu aboga por construir un nuevo modelo de residencias “público, universal y gratuito” en Bizkaia.**

(Bilbao, a 17 de julio de 2020). La Coordinadora de ONGD de Euskadi ha comparecido hoy en las Juntas Generales de Bizkaia a fin de hacer llegar y presentar su posicionamiento y medidas para una salida “justa e inclusiva” de la crisis generada por la propagación de la COVID-19, y alcanzar un “gran pacto foral” que garantice que el territorio histórico de Bizkaia “no deje a nadie atrás”. En este sentido, su portavoz hoy en la Comisión de Peticiones y Relaciones con la Ciudadanía, Sonia González, ha apelado a “fortalecer los lazos de solidaridad en todo el mundo” .

En su comparecencia, González ha hecho un repaso de las principales medidas que plantea la coordinadora que agrupa a 79 ONGs de Euskadi. Entre ellas, se ha referido a “fortalecer los servicios públicos” en todos los ámbitos de la sociedad; “garantizar una sanidad pública de calidad” que atienda a “todas” las personas afectadas por la infección; “blindar” el derecho a la vivienda; “poner en valor” el trabajo de cuidados y “proteger” a la infancia y garantizar el derecho a la educación. Asimismo, ha pedido “asegurar” que todas las acciones enmarcadas en la coyuntura de emergencia tengan en cuenta “la perspectiva interseccional de género y diversidad afectivo-sexual”, y “reconocer y ampliar los derechos laborales de todas las personas”.

La representante de la Coordinadora de ONGD de Euskadi ha apelado también a que en la reconstrucción económica “prime la justicia social y la transición ecológica”. En este sentido, para las Organizaciones No Gubernamentales es importante “reconocernos como parte de la naturaleza para buscar otras fórmulas en las que relacionarnos con el planeta y el resto de seres vivos”. González ha puesto en esta batería con 13 demandas la de “fortalecer el tejido



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
BIZKAIA

social y la capacidad de la ciudadanía para construir redes de apoyo; asegurar las libertades públicas de todas las personas frente al marco de restricción justificado en la declaración de emergencia; y apostar por un marco internacional justo y respetuoso con los derechos humanos”.

Asimismo, González ha pedido a los grupos junteros no olvidar otros desafíos “urgentes” que tiene la humanidad, como son “los conflictos armados, el hambre, los feminicidios, la homofobia, la transfobia, la situación de las personas refugiadas, la emergencia climática, la rápida tasa de pérdida de biodiversidad, las muertes evitables por enfermedades prevenibles..., problemas globales que no se encuentran en cuarentena y que nada justifica dejarlos atrás”.

A preguntas de los grupos junteros, la portavoz de la Coordinadora se ha referido a la relación que mantienen las ONGs con las instituciones públicas que ha dicho que es “muy buena”, si bien existe un “problema” con la participación activa, ya que “nuestras demandas no son recogidas”. En concreto, con la Diputación foral de Bizkaia existe, según ella, “un largo camino que recorrer para mejorar la participación activa”. Por último, ha pedido que no se olviden de alcanzar el 0,7% del presupuesto foral a políticas de Cooperación y Desarrollo.

## MODELO DE RESIDENCIAS DE MAYORES

En la comisión ha comparecido también la integrante de la Asociación Babestu, Iraide Urriz, para dar a conocer las propuestas de esta entidad respecto al modelo y la gestión de las residencias de mayores en el territorio. La compareciente ha abogado por construir en Bizkaia otro modelo asistencial de mayores, que sea “público, universal y gratuito”, ya que el modelo de colaboración público-privada actual “no funciona” y esto ha sido visible en la crisis sanitaria del Covid-19.

Urriz ha ofrecido una radiografía general de la situación “preocupante” de las residencias de Bizkaia en plena pandemia, criticando algunos aspectos que han empeorado el servicio que se ofrece a los mayores, como ha sido la prohibición de recibir visitas, la falta de personal, sobre todo, los fines de semana, o la falta de material de protección y de información a la ciudadanía. La compareciente ha centrado también sus críticas en trasladar la inexistencia de personal médico para atender a los usuarios y usuarias con problemas de salud.